

**Title:** Hitzera Itzuli

**Composer:** Francisco Ibáñez Iribarria

**Ref:** CM.2.0084

## Hitzera Itzuli

Hitzetik nator,  
Ezerezetik eta pentsamendutik,  
Elkartze baten ertzetatik,  
Nahi dut baten samurtasunetik.

Ene aukera

Eta bizitza aletu dut ene hitzetan  
Eta arima utzi ene kantuan  
Eta hatsa egokitu dut eta keinua moldatu  
Eta ene eztarriarekin hautsi dut sumina  
Eta azpiratu betiereko munstroa  
Eta haren suaz ditut hitz-pertseidak sortu

Ene aukeran  
Hitz bihurriak, merkeak, mutu bilakatuak.

Isiltasunetan barna dagit ihes  
Harik eta izua meneratu arte,  
Harik eta begirada eta erraiak jaso arte,  
Harik eta itxaron-kaiak bilbatu arte,  
Harik eta hitzera itzuli arte.

## Hitzera Itzuli

Vengo de la palabra  
De la nada y del pensamiento  
De las aristas de un encuentro,  
De la bondad de un quiero.

Mi turno.

Y desgrano en mis palabras la vida  
Y abandono el alma en mi canto  
Y acompaso el aliento y modero el gesto  
Y rompo la ira con la garganta  
Y doblego al monstruo sempiterno  
Y hago de su fuego perseidas de palabras

En mi turno  
Palabras torcidas, en venta, enmudecidas

Huyo por los silencios  
Hasta aherrojar el miedo,  
Hasta elevar el rostro y la entraña,  
Hasta tramar puertos de espera,  
Hasta volver a la palabra.